

Eskola-irratia, komunikabidea tresna pedagogikoa bihurtuta

Arantza Gutierrez Paz

**EHUko Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate Saileko irakaslea,
eta UEUko Kazetaritza Saileko kidea**

Irrati-eskola bat kudeatzea, oso ekintza dibertigarria izateaz gain, ikasketa-prozesuan erabiltzeko tresna interesgarria izan daiteke. Era berean, ikasketa ikasgeletatik atera eta gizartera aurkezteko balio du. Bereziki, hizkuntzen ikasketan (euskararenean gurean) nabaritzen dira irratiairen onurak, eta zehazki ahozko adierazpenaren alorrean. Baina zerbait gehiago eskaintzen die ikasleei: alde batetik, kazetari moduan, ingurunea ezagutzea, eta, beste aldetik, soinu-testuak sortzea, muga bakarra sormena izanda.

Gaur egun, eta informazioaren teknologia berriei eta Interneti esker, irradi-tailer edo eskola-irradi bat muntatzeak ez du diru handiko inbertsiorik eskatzen, eta edonork izan dezake halakorik ikastetxean; are gehiago, kalitate handiko produktuak egiteko behar den azpiegitura ia dohainik dute eskuragai eskolek. Hala ere, eta teknologiaren garrantzia baztertu gabe, betiere funtsezkoak dira kontatzen dena eta azaltzeko era; horregatik, ondo eraturiko gidoian oinarritu behar da irradi-sormena, hori baita ahozkotatasunaren adierazpen idatzia.

The management of a school radio, besides an entertaining activity, is a learning way that helps the students in their educative process, and simultaneously extracts it from the classrooms and gives it to know to the community. It is in the education of the languages, and concretely in its oral expression, the field in which more effective is the radio. But it offers something more to the student: the possibility of knowing and of interacting with him/her environment, like a journalist would do, and of creating sonorous texts, with the only limit of him/her imagination. Also, it learns to tell it to the others, that is the aim of the media.

Also, nowadays, and thanks to the application of the new technologies of information and Internet, to create a studio or a school radio is within reach of all persons, because it is not necessary a great infrastructure for make good quality programs. But, although the technology is important, the fundamental is what and how it is counted, and that is why the script cannot be neglected, because on it and on a written oral expression is based the radio creation.

1. Sarrera

Komunikabideen paper hezitzailea ukaezina da batzuen ustez; beste batzuek, aldiz, salatzen dute hezteko erantzukizuna edo ardura gehiegitan komunika-bideen esku uzten dutela gurasoek. Salaketa hori ilustratzeko, haurrek telebistaren aurrean ematen duten ordu-kopuru handia (bi ordu eta erdi baino gehiago egunero) argudiatzen dute. Hori dela eta, gero eta gehiago dira komunikabideak tresna pedagogikoa bihurtzeko aukera aprobetxatzearen aldekoak.

Zehazki, hezkuntzaren alorrean bi eratan erabili izan dira tradizionalki hedabi-deak: arautuan (egunkari eta aldizkarietako artikuluak, bideoak eta argazkiak erabili ohi dira askotan eskola-euskarri gisa, liburuekin eta fitxekin batera), eta jarduera osagarri moduan (ikasleek egindako kazeta, irratsaioak eta bideoak, adibidez). Baina, Moix-ek proposatzen duen moduan, hedabideen ezaguerak sakonagoa izan beharko luke eskola-material egokia izan dadin:

L'educació en els mitjans o l'alfabetització en mitjans (conèixer) és més complexa. Suposa portar a terme propostes d'ensenyament - aprenentatge relacionades amb es continguts corresponents a matèries o temes que tenen a veure amb un coneixement més aprofundit dels mitjans, proposant els mitjans com a objecte d'estudi. Aquest enfocament implica treballar continguts que es relacionen amb aspectes com el següents: els agents de producció, el llenguatge, les categories, les tècniques, la representació i els destinataris dels mitjans de comunicació. Continguts que han estat proposats pels autors anglesos Masterman i Bazalgette (M. Moix).

Ondorioz, eta komunikabide baten kudeaketan eta funtzionamenduan parte hartzen duten arlo guztiak —eta bereziki, hezkuntzan erabilgarriak direnak— ezagutzeko, eskola barruan bat sortzea litzateke aukerarik ona. Konplexutasun teknikoengatik telebista baztertu eta gero, Robert Arnau-k eta Joan Forcada-k irratia jo zuten komunikabiderik egokiena, idatzizko adierazpena ez ezik, ahozko hizkuntza ere lantzea ahalbidetzen baitu.

(...) ja que aquest mitjà conjuga molt bé elements dels altres mitjans de comunicació, com pot ser: plantejament escrit de notícies per posteriorment locutar. Els alumnes aprenen quines són les eines del periodista, com es realitza la tria informativa i s'organitza la informació: i a més a més, la radio ens permet ensenyar als alumnes com s'han d'expressar oralment, donant pautes de locució i fins i tot de retòrica (Arnau eta Forcada).

Dena den, irratia erabilera harago doa, eta ikasmateriala edo ikasgai soila baino gehiago da. Artikuluan frogatuko dugunez, ikastetxe barruan irratia bat kudeatzeak ikasleengan ez ezik, irakasleengan eta gurasoengan ere eragin posi-tiboak ditu.

a. Irakasleen trebakuntza eta teknologia berrien erabilera bultzatzen ditu irratia baten kudeaketak. Era berean, ikasbide berriak zabaltzeaz gain, ikastetxe barruan antolatzen diren jardueretan parte-hartze zuzena izan dezaten eta sakabanaturik dauden ekitaldiak edo lanak koordina daitezen laguntzen du. Dena den, teoriar horrela izanda ere, esperientziak agerian uzten du horixe bera izaten dela atal ahulenetariko bat: irakasleen inplikazioa, alegia. Normalean (eta tamalez), irakasle batek edo bik soilik hartzen dute eskolako irratia ardura, eta horien gainean

oinarritzen da zama osoa. Ez da kasualitatea irakasle arduradun hori gurean euskara-irakaslea izatea; izan ere, horrek ikusten baitu argitasun handiagoz irrtiaren balioa hizkuntza lantzeko orduan. Gutxi batzuetan, berriz, gaztelania edo beste erdal hizkuntza irakasten duena izaten da irrtiaren bultzatzaile nagusia. Beste ikasgaien arduradunek ez dakusate hain argi zeintzuk diren irrtiak eskaintzen dizkien baliabide pedagogikoak.

Denbora, baliabide edo erabilgarritasun falta aitzakiatzat argudiatzen dutenen aurrean, esan beharra dago eskola-irrtiak aukera anitz eskaintzen dituela ikasteko prozesuan: hizkuntzen ikasketaz gain, Teknologia, Ingurunearen Ezaguera edo Literatura ikasgaiei dagozkien hainbat ikasgaik tokia baitute irrti-parrillan, bai edukien bai taxuera edo generoen lanketan.

b. Ikasleentzat, dudarik gabe, oso ikasketa-tresna dibertigarria izan daiteke irrtia, entretenigarria bezain eraginkorra, hau da, ondo pasatu ahala, ikasten ahalbidetzen diena. Askok dira, ondorioz, irrtiak ikasleei eskaintzen dizkien onurak.

Komunikabideek hain presentzia handia duten gizarte honetan, irrtiaren funtzionamendua, antolamendua edo historia ezagutzeaz gain, haren maneia ikastea eta kudeatzea ere oso aberasgarria izan daiteke ikasleentzat. Era berean, programazio-parrilla osatzen duten edukiak kontrolatzen dituen neurrian, informazioaren jasotzaile pasiboa izatetik eragile aktiboa izatera pasatzeko aukera ematen dio irrtiak ikasleari. Bera da informazio-emailea, eta ez hartzaile hutsa (ikasgelan gertatzen den bezala).

Irrtiak eskatzen dituen lan guztiak taldeka egin behar izateak beste balio bat eransten dio eginkizun horri: ikaskideekiko elkarlana, alegia. Hau da, besteen laguntza, ideiak eta lana behar-beharrezkoa da guztion artean irrtsaio edo programazio bat aurrera eramateko. Horrek beste ondorio bat dakar: guztion ahotsak entzun behar dira, inoren ekarpenak, irrtiak edo proposamenak baztertu gabe. Beraz, alde batetik, bere ideiak azaltzen eta argudiatzen ikasiko du haurrak/gazteak, baita besteenak entzun eta onartzen ere¹.

Era berean, irrti-hizkuntza bereganatu behar du ikasleak, entzunezkoan oinarritzen den hizkuntza, alegia. Musikaren, hotsaren eta isiltasunaren adierazpen-ahalmenaz gain, bereziki ahozko hitzarena, mintzoarena, lantzeko aukera eskainiko dio irrtiak. Halaber, eta irrti-diskurtsoa berez idatzizkoan oinarritua denez, idazketan eta irakurketan trebatzeko ere balio handiko tresna da irrtia². Horretaz gainera, hizkuntza bera aberasteko aukera ematen dio irrti-lanak:

1. Radio Enfant/ado: "Le potentiel éducatif de la communication": *«L'ensemble de la démarche de production des émissions favorise la coopération, et l'entrepreneuriat. Créer une émission de radio est une entreprise collective dans laquelle le travail de l'un dépend du travail de l'autre et où les décisions sont prises en commun. La radio est un lieu de vie où droits et devoirs se conjuguent au quotidien. Chacun a droit au respect mais se doit aussi de respecter l'autre et son environnement. La radio intégrée à une pédagogie de projet, favorise la responsabilité, l'autonomie, le respect, la prise de parole, l'esprit critique. Le projet radio met en place des modes de fonctionnement démocratiques qui donnent aux enfants la possibilité de participer à la prise de décisions»*. www.radioenfant.ca.

2. Pontoreau, Pascale (2003): *«Faciliter les apprentissages suivants: communiquer efficacement, s'exprimer correctement, énoncer des idées bien organisées, utiliser un vocabulaire précis et varié»*. "Une démarche créatrice: la radio à l'école primaire". www.petitmonde.com/iDoc/Impression/article.asp?id=24834§ion=>

hiztegia lantzeko, intonazioa eta ahoskera zaintzeko eta bat-bateko diskurtsoa antolatzeko, besteak beste. Hori guztia ingurunearekiko harremanetan komunikabideak eskaintzen dituen baliabideak zokoratu gabe, ingurua ezagutzeko prozesuan ez ezik, besteei komunikatzekoan ere bai. Halaber, sormena eta trebakuntza artistikoak (literarioak, dramatikoak edo/eta entzunezkoak) lantzeko tresna izan daiteke irratia.

c. Gurasoek osatzen dute eskolan inplikazio txikiena duen taldea. Horretan eragingo du bereziki irratia. Norberaren alabak edo semeak egiten duen hitzaldi edo parte-hartzeaz gain, ikastetxearen eta guraso-elkartearen arteko komunikazioa bultzatzen du komunikabideak. Besteak beste, eskola barruan antolatzen diren jarduerak ezagutarazi ahal dira emanaldietan, baita eskola-komunitateak berak sortzen dituen albisteak azaldu ere. Beraz, topagunea izan daiteke irratia, Pascale Pontoreau-k dioen moduan:

(...) favoriser le lieu entre l'école et les parents du quartier et la communauté par l'entremise de la radio: créer des liens entre l'école et des lieux culturels à caractère scientifique (Pontoreau, 2003).

Irratia, hezkuntzarako tresna

Esan bezala, komunikabideak oro har, eta irratia bereziki, oso tresna egokiak izan daitezke hezkuntzan. Sara Reñé-k agerian uzten duenez, curriculumaren barruan, hizkuntzetan ez ezik, ikasgai askotan ere landu daiteke komunikabidearekin zerikusia duen atalen bat (adibidez, DBHn: Teknologian, Ingurunean, tailerretan...), baina, zalantzarik gabe, hizkuntzen irakaskuntzan nabariagoa da irratia paper pedagogikoa:

L'àrea de llengua sembla una de les àrees més adient per integrar els continguts de l'EC. Es prioritza, en aquest cas, la part textual dels mitjans i s'incorpora regularment la lectura, l'anàlisi i la producció de textos mediàtics (Reñé).

Hala ere, eta Osak, Muñoak eta Elorzak ohartarazten dutenez, hizkuntza ikasteko prozesuan, curriculumaren eremutik harago joan daiteke irratia (komunikabideen) erabilera. Izan ere, eta irakasle askok dakiten moduan, eredu formalak eta arau gramatikalak bereganatu arren, ikasgelatik kanpo haurrek eta gazteek erabiltzen duten hizkuntza gero eta pobregoa da³. Horren erantzukizuna askotan leporatzen diete komunikabideei, horiek oso ahalmen handia omen baitute hizkuntzaren erabilerak (modak?) ezartzeko orduan. Hori dela eta, komunikabideetan —eskola-irratian zehazki— jartzen dute egoerari buelta emateko eginkizuna; hau da, komunikabideek sortzen duten gaixotasuna sendatzeko bide lirarteke komunikabideak berak (beste neurri batzuekin batera, noski).

a. Hizkuntza ikasi

Eskoletan, gero eta hedatuagoa dago irakaskuntza eleanitza, inguru elebidunetan ez ezik (Euskal Herria edo Katalunia, kasu), elebakarretan ere (atzerriko hizkuntzak). Eredu elebakarretan ez bezalaxe, bigarren hizkuntza bat —euskara,

3. Fenomeno hau ez da euskararen esklusiboa, beste hizkuntzetan ere gertatzen baita, globalizazioaren ondorioak antza.

katalana, gaztelania edo frantsesa aipaturikoetan— modu naturalean, familian bertan, ikas dezake ikasleak. Baina ez da beti horrela gertatzen, eta ama-hizkuntza ez den bigarren hizkuntza hori ikasteko lekua da eskola. Dena den, ikastetxe barruan egindako lana ez da nahikoa gero hizkuntza hori erabiltzen ez bada, hizkuntza bat ikasteko bidea erabilera baita, edo, J. M. Artigal adituaren hitzetan:

Hizkuntzak ez dira aurrez ikasten, gero erabiltzeko; erabili ahala jabetzen gara hizkuntzaz (Artigal, 1993).

Iritzi bera du Ignasi Vila Gironako Unibertsitateko Psikologiako irakasleak:

Hizkuntzaren bat ikasteko modurik onena hizkuntza hori erabiltzea da. Horregatik, eskolan gauzak ikasi eta irakatsi egiten direnez, eskolan hizkuntzaren bat ikasteko, hizkuntza hori erabili egin beharko da, gauzak ikasteko era irakasteko (Vila, 2004).

Eskoletan, ordea, hizkuntzaren irakaskuntzan ikuspegi estrukturala lantzen da eskuarki, hau da, arau gramatikalek eta egitura formalek osatutako corpusa.

Eskolaren ohiko hizkuntzaren trataeran, hizkuntzaren ikuspegi estrukturala nagusitu izan da; hau da, hizkuntza sistema formal gisa ikusi izan da, erregela eta elementu multzo abstraktu eta orokor gisa (Artigal, 1993).

Euskarari dagokionez, familia edo inguru erdaldunetan bizi diren haur eta gazte askok eskolan dute euskararekiko harreman bakarra. Esan bezala, hizkuntzaren arlo formala lantzen dute bertan bereziki, eta oso toki txikia uzten da lagunarteko hizkuntza erabiltzeko. Hortik kanpoko harremanetan, berriz (zoritxarrez), erdara aukeratzen dute nagusiki⁴. Ikastolek aurrera daramaten *Euskaraz Bizi* eta antzeko egitasmoek, eskolaz kanpoko kirol-ekintzek, bertso-eskolek edota egun batzuetako egonaldiak helburu nagusitzat dute euskara geletatik ateratzea. Eginkizun horretan lagundu ahal du eskola-irritiak edo irritai-tailerrak, Valentziako *Radio-Activitat* irritiaren esperientziak agerian utzi zuenez:

Es important recordar que tots els programes s'han emès en valencià, tant la redacció dels guions com la locució s'han treballat de forma molt acurada, tot i que molts alumnes son castellano-parlants, el que ha suposat un gran esforç per la sua part i una gran oportunitat de practicar la llengua en contextos reals dés i en uns mitjans de comunicació on la normalització lingüística est lluny d'assolir els mínims (Pérez Sorl).

Esparru euskaldunetan bizi diren hurrek eta gazteek erabili ahala ikasten dute hiztegia. Euskaraz irakurtzen, euskal komunikabideak kontsumitzen eta familian euskara erabiltzen badute, euskara aberatsagoa dute, eskolan soilik erabiltzen

4. Kezka hori agerian utzi zuten adituen ekarpenek 2004an Gasteizen ospaturiko XI. Jardunaldi Pedagogikoetan, zeinetan ahozketasunaren garrantzia aldarrikatu zuten, idatzizko ikasketa nagusiaren aurrean: « (...) irakurketa eta idazketa ikastetxeetako komunikazioaren jaun eta jabe bihurtu zaizkigu, hariak eta Mendebaldeko hezkuntza sistema askori buruzko txostenetan egungo gazteen ahozko hizkuntza gaitasun eskasa jaso den arte (...) euskarazko ereduetan ikasten aritu arren, gelatik atera orduko, erdaraz ari diren haur zein nerabeen jarrerak —oro har— kezkatzen gaitu.

(...) Hizkuntzak, oro har, euskara bereziki, gela barruan zein gelatik kanpo gauzak egiteko baliatzen dugun neurrian eskuratzen ditugu. Testuinguru horretan, euskara gustuko dituzten jardueretan (ez eramanezin edo obligazioarekin) lotzeko urratsak egin behar ditugu». (Osa, Elorza eta Muñoz, 2004).

dutenek baino (salbuespenak salbuespen). Horrelakorik ezean, eskola-irratia es-kaini ahal die hiztegia aberasteko modu dibertigarria —eta ikastoletan egiten diren “atarikoak” baino askoz eragingarriagoa—. Azaldu den bezala, adituak kezkatu-rik dabiltza gazteek erabiltzen (ez) duten euskara oso zuzena baita gramatikalki, baina batere praktikoa gaztetxo- en arteko harremanetan. Ikastolan, euskara ona eta zu-zena⁵ erabiltzen ikasten duten arren, beharbada ez da egokiena eskolatik kanpo aritzeko (besteak beste, neologismoak, modan dauden esamoldeak, lagunarteko esapideak edota teknologia berriei lotutako mezu berriak —SMSak kasu— nekez sartzen baitira ikasliburuetan).

(...) bere behar eta betebehar komunikatiboak asetzen dituen hizkuntza ahalik eta jatorrena, ahalik eta aberatsena, eta behar denean, ahalik eta zuzenena erabiltzea litzateke kalitatezko euskara. Eta honek goi-mailako literaturarekin bezala, futbol partidetak hizkerarekin, biraorekin, ligatzeko moduekin eta txisteak kontatzeko baliabide linguitikoekin du zerikusia... (Amonarriz, Arruti eta Osa, 2004).

Halaber, buruz ikasiz baino hobeto egoera errealean erabiliz bereganatzen dituzte hitz edo esamolde batzuk ikasleek; eta irratsaio- en bidez sartu ahal dira horiek poliki-poliki eguneroko hizkuntzan (Goenkaleko Txapasek zioen “Hori egi- na zegok” berea egin zuten gazte askok, imitazioa baita ikasteko beste bide bat). Irrati- testuetan ondo uztarturik ikasten ditu ikasleak hitz eta esapide berriak (ber- entzat, behinik behin), batez ere gustuko baditu. Esan beharra dago, askotan erdarazko esamoldeak erabiltzen dituela besterik ezagutzen ez duelako, eta eus- karazko “musu-truk”, “kristona”, “hori kopeta” edo “hau larru gorria” izan daitezke “aurpegiagatik” edo “gual” edo “zelako muturra” bezain eraginkorrak, eta jatorra- goak, ezparik gabe⁶

Era berean, irradi- mezu- a zehatza izan behar da entzuleak aditu eta berehala uler dezan. Are gehiago, ikaskide- en arteko komunikazioan, kontzeptu abstraktuetatik ihes egingo du ikasleak, mezu zehatza azalduko du, besteek uler dezaten, hori baita komunikazioaren xedea.

(...) les enfants comprennent l'importance d'adapter son langage au public qui écoute (...) Lors de la préparation des séquences, chacun doit veiller être clair et utiliser un vocabulaire spécifique compréhensible de tous. Pas question de dire n'importe quoi, n'importe comment... (Pétit Génies).

5. Ibon Sarasolaren kontzeptuetan, Kike Amonarrizek, Andoni Egañak eta Joxerra Garziak hiru maila bereizten dituzte hizkuntzaren kalitateari dagokionez: a) Euskara zuzena edo Euskaltzaindiaren arauen arabera- koa; b) Euskara jatorra edo euskararen senaren edo usadioaren arabera- koa eta c) Euskara egokia, bere xede komunikatiboetara egokitua, edo egoeraren arabera- koa. Ikastolan ikasitako- a, zuzena den arren, oso gutxitan izaten da jatorra edo egokia, batez ere, gazteek behar duten komunikazio- tresna moduan.

6. Horren inguruan lan bikaina egiten ari dira Joxerra Garzia, Andoni Egaña eta Kike Amonarriz, besteak beste. Era berean, horren inguruko hausnarketak aurki daitezke Ulibarri egitasmoan: www.ulibarri.info. Horiek eta beste batzuek oso kezka handia azaleratzen dute gazte euskaldun- ek erabiltzen duten euskaraz, eskolak horretan duen erantzukizunaz eta egoera hobetzeko egin ahal duenaz. Kezka horren adierazle ditugu ere ahoz- kotasunaren inguruko gogoeta eta ikastaro ugariak.

b. Ahozko adierazpena landu

Era berean, eta orain arte esandakoarekin jarraituz, ikaslearen ahozko adierazpena hobetzeko aukera ematen du eskola-irratia. Izan ere, esaten denak ez ezik, esaten jakiteak ere ezinbesteko garrantzia du informazioa besteei helarazteko orduan, eta hori da komunikabideen helburu nagusia: pertsonen arteko komunikazioa ahalbidetzea, alegia.

Gauzak izendatzen hasten denean, horietaz jabetzen da gizakia. Izenik ez daukana ez dagoela esan genezake. Hau da, ingurunea ezagutzeko ezinbesteko tresna da hitza. Izan ere, berbaz adierazten ez den arte ez da jakiten ea umeak kontzeptu bat ikasi duen ala ez. Era berean, hitza erabiliko du ikasitakoa besteei adierazteko, hots, komunikatzeko.

(...) ahozkoak garrantzi nabarmena duela ikaskuntza prozesuan; izan ere, haurrek ez dituzte ezagutzak pilatzen, baizik eta ingurunearekin eta ingurukoekin elkarreaginean eraiki egiten dituzte. Ikuspegi horretatik abiatuz gero, komunikazioa, hots, elkarrizketa, izango dugu ikaskuntza prozesuaren giltza (Osa, 2004).

Hitzez izendatzearen hurrengo urratsa izendapenak idaztea da, eta ikasleak idaztean —eta irakurtzean, ondoren— hasten da ikasketa-prozesua. Horrekin batera, idatzizko hizkuntzarekiko menekotasuna hasten da finkatzen eskola-eremuan:

Sarritan, ikasgelara etorri den hizkuntza-eredua idatzia izan da eta ikasleei berba egin/eragin izan zaienean, idatzizkoaren ezaugarriekin, ez ahozkoarekin... (Gaminde eta Goikoetxea, 2003)

Ikasleek, oro har, idatzizko adierazpenean oinarrituriko trebakuntzak lantzen dituzte: idazlanak, diktaketak, azterketak..., eta oso gutxitan, ordea, ahozkoak, eta horiek askotan jende aurreko irakurketara mugatzen dira. Ahozko adierazpena, ordea, funtsezkoa izango zaie ondoren, giza eta lan-harremanetan. Gabezia horretaz konturatuta, gero eta gehiago dira ahozkotetasuna eskolan lantzearen aldeko adituak. Horiek ere oso begi onez ikusten dute irratia erabilera zeregin horretan.

Gainera, ahozkotetasuna landu arren, ez da idatzizko adierazpena baztertzen irratian, Gloria Bouaiz-ek dioen moduan:

(...) l'oral radio ests un oral écrit qui s'adresse à l'ouïe (Bouaiz, 2003).

Testuan oinarritu arren, ezberdintasun batzuk daude idatzizko eta ahozko hizkuntzaren artean, azken horren ezaugarri nagusiak bereak egiten ditu irratia. Lauki honetan, laburtu ditugu aipagarrienak⁷:

7. Irratirako idazketaz zertxobait gehiago jakiteko, UEUK argitaraturiko honako liburu hau gomendatzen dut: Gutierrez Paz, A., eta Fernandez Astobiza, I. (2005): *Irratsaio bat egiteko tailer praktikoa*, UEU, Bilbo.

	Idatziko testuak	Irrati-testuak
	Hizkuntza landua.	Hizkuntza naturala: ahozko adierazpena.
Mezuaren antolaketa-ri dagokionez	Erredundantzia gutxiago. Errepikapenak saihesten dira.	Errepikapenak erabiltzen dira mezua argia izan dadin: noizean behin esandakoa errepikatu, laburbildu edo gogoratu beharko du esatariak.
	Sinonimoak erabiltzen dira, ez errepikatzeaz- rren. Izenordainak erabiltzen dira testuan aipatu- riko izenak berriz aipatzeko.	Izenordainak edo nahastea sor dezaket sinonimoak baztertzen dira.
Gramatika: sintaxia	Gramatikalagoa: puntuazio-markak, nomina- lizazioak, sinonimoak, loturak (juntagailuak, erlatiboak...)	Gramatikaltasun txikiagoa: batez ere, geldiuneak eta intonazioak erabiltzen di- tuzte, eta gramatikako zenbait elementu: izenordeak, juntagailuak. Nominalizazioak saihesten dira.
	Egitura konplexu eta garatuagoak. Esaldi luzeagoak, menpeko esaldi asko.	Egitura sinpleak: esaldi sinpleak eta laburrak. Koordinatuak, menpekoak baino nahiago.
	SOA izeneko egitura gehiagotan errespetatzen da.	Galdegia ez da beti aditzaren aurrean joan behar (SOA egitura ez da beti mantentzen)
Gramatika: morfosintaxia	Abstraktuagoa da. Kontzeptuak azaltzen dira, ideia zehatzekin batera.	Zehatzagoa da: hitz abstraktuak baino hobeto, berba zehatzak.
	Zehar-estiloa erabiltzen da.	Estilo zuzena: perifrasiak edo itzulingururik ez. Hobeto aditz aktiboak, pasiboak baino.

Irakurketa espresiboa lantzeko tresna baliagarria da irratia. Ikasgelan, ikaskideen aurrean leitzeko esperientzia baino aberasgarriagoa da irratikoa. Ahoz zerbait komunikatzeko, intonazioak duen garrantziaz jabetzen da ikaslea. Esaten dena ez ezik, nola erran jakin behar du ikasleak: hitz batzuk azpimarratu, ideia batzuk nabarmendu, sentimenduak adierazi ahal ditu esatariak intonazioaren bidez, eta esan nahi duena besteek ondo uler dezaten, esaldi bakoitzari dagokion soinua eman behar dio hizlariak.

Aurretik idatzitako testuaren gainean aritzeak segurtasuna ematen dio ikasleari. Praktikatu ahala, gero eta askeagoa izango da, baita seguruagoa ere. Dena den, arnasa-ariketek, erlaxazioak lagundu ahal dute ikaslea lasaitzen. Horretaz gainera, jarduera ludikoa den neurrian, eskola barruko presiorik gabe arituko da gaztea (ikaskideen aurrean ozenki irakurri beharra oso oroitzapen txarra izan daiteke urte batzuk geroago), eta errazago onartuko ditu hobetzeko oharpenak.

Bat-bateko diskurtsoak ere badu lekua irratian. Baina inprobisatzeak ez du esan nahi ezer prestatu gabe aritzea. Trikimailu gutxi batzuk ikasita, haurrak eta gazteak diskurtsoa osatzen ikas dezakete. Hitz-jario desantolatua izan ez dadin, irradi-diskurtsoak prestakuntza eskatzen du, eta prestatzen duen bitartean, ikasi ez ezik, segurtasuna ere hartzen du. Zalantzarik gabe, ziurtasuna, autokonfiantza dira oso ezaugarri onak munduari aurre egiteko, inteligentzia emozionala deiturikoa indartzeko, eta, bide batez, arrakasta lortzeko bidean jartzeko. Irratia ez da senda-belarra izango, baina lagundu ahal ditu ahoz adierazteko arazoak dituzten haurrak beren beldurrak gaindi ditzaten (betiere, irratikoa ekitaldi ludiko gisa bizi badu).

Baina, benetan tresna baliagarria izan dadin, ikasleek entzun behar dute egindakoa. Mikrofonoan aritzea bezain inportantea da egindakoa entzutea, akatsak zuzen ditzaten. Haurrak kritikoeziak izan daitezke ikaskideak eta norberaren burua epaitzeko orduan; beraz, irakasleak gidatu beharko du hausnarketa, eta bakoitzaren lorpenak goraiatu, eta zuzenketak era positiboan aurkeztu (“gaizki” egindakoa azpimarratzea baino eragingarriagoa izan daiteke hurrengoan nola hobetu azaltzea).

c. Inguruarekiko harremana: ingurunea ezagutu

Irratia ingurunea ezagutzeko eta, bide batez, inguru hurbilean zein hortik kanpo gertatzen diren jarduera kulturalak, artistikoak, kiroletakoak, zientifikoak eta beste motatakoak ezagutzeko aukera ematen dio ikasleari.

Elkarrizketen eta erreportajeen bidez, ingurunea ezagutzen dute ikasleek modu dibertigarriaz. Haien izango dira kazetariak, eta informazioa (datuak, kontzeptuak) jaso baino gehiago, bildu eta eraiki egiten dituzte. Edo, komunikazioaren teoria klasikoa erabiliz, “hartzaile” pasiboak izatetik “igorle” aktiboak izatera igarotzen dira, beraiek eraikitzen baitute mezua, baita besteei komunikatu ere.

Alde batetik, ikasleek iturri ezberdinetatik jasotzen dituzte protagonisten hitzak, lekukoaren adierazpenak edo kontaketak, eta informazioa biltzen dute. Aldi berean, errealitateak aurpegi edo alde ezberdinak izaten dituela ikasten dute (ez irakasleek, gurasoek edo liburuak irudikatutakoa soilik).

Ondoren, jasotako informazio hori guztia antolatu behar dute, baita ordenatu, eta laburtu ere. Zentzu kritikoa erabili behar dute horretarako: alde batetik, informazio nagusia eta bigarren mailakoa bereizteko, eta, beste aldetik, nola eman erabaki, betiere nori zuzenduko dioten (entzuleria) kontuan hartuta. Esaterako, ikasleei zuzendutako informazioak modu erakargarrian aurkezten saiatuko dira, irakasleek eskolan egiten dutenaren itxuratik ihesiz. Gurasoei zuzendutako irratsaioek, berriz, haien arreta bereganatu beharko dute, eta, beraz, eskola-informaziotik harago joan. Arestian aipatu dugun moduan, entzuleen arabera egokituko dute mezua bera, xede komunikatiboa zein den ahaztu gabe.

d. Gizarte-ohiturak eta balioak ikasteko tresna

Ahantzi ezin den hezkuntzaren beste atal bat, dudarik gabe, balioena da. Zoritzarreko *bullying* edo jazarpena eta biolentzia ezin izango ditu ekidin irratia, baina oso tresna egokia izan daiteke hurrengoan edo gazteengan giza balio batzuk indartzeko. Hala nola, hauek dira irratiko lanaren bidez bultzatu ahal diren balioak:

a. Erantzukizuna, ardura. Ikasle guztiak dira egitasmoaren partaideak, eta guztiek hartu behar dute parte. Bakoitzak badu bere ardura, eta bere lana ondo bete behar du irratsaioa eta programazioa aurrera joan dadin.

b. Autonomia. Irakasleek gidatzen duten arren, ikasleek daramate irratsaioa aurrera. Haurrek irati-errealizazioa bereganatzen duten heinean, autonomoagoak dira, bai edukiak aukeratzeko orduan, baita lan-egitasmoak aurrera jotzeko ere. Halaber, independenteagoak bihurtzen diren neurrian, haien arteko interdepen-

dentziaz jabetzen dira; guztion lana behar-beharrezkoa izateaz gain, bakoitza makineria oso baten partaidea da.

c. Elkarlana. Irratsaio bakan bat pertsona batek egin dezake, baina ezinezkoa da irrati-parrilla oso bat aurrera eramatea guztion parte-hartzearekin ez bada. Besteekiko lan horretan, honako betebeharrak ezagutzen ditu:

- Irratsaioa aurrera eramateko guztion lana beharrezkoa da.
- Lan-banaketa: bakoitzak bere ardura du. Eginkizun horiek finkoak izan daitezke, edo txandaka aldatu.
- Ikasle bakoitzaren konpromisoak bete behar dira: nor bere lana egiten ez badu, irratsaio osoa hankaz gora jartzen da.
- Guztion ahotsak entzun behar dira; denen ideiak dira baliagarriak.

d. Partaidetasuna. Ikaslea ez da entzule soila, aktorea baizik (eskolan, irakasleak informazioa eskaintzen du; irratian, berriz, ikasleak berak dira komunikatzaileak).

Era berean, komunikazioa bideratzeko tresna den heinean, ikasleak informazioaren subjektibotasunaz jabetzen dira, eta kritikoagoak izan daitezke. Halaber, eta bakoitzaren lanaren garrantzia ezagutzen dutenez, besteena balioztatzeko gai dira, eta egindako kritikak konstruktiboak dira. Orduan, kritika horiek onartzeko prest daude, baita norberaren lanarena egiteko prest ere (autokritika).

Horren ondorioz, bestearekiko errespetua lantzen da. Denek parte hartzen dute eta, beraz, hitz egiteko aukera dute. Bat mintzatzen ari denean, besteek isildu behar direla ikasten dute. Oso garrantzi handia du txandak gordetzeak, baita bakoitza noiz sartu behar den jakiteak ere. Gidoiari jarraiki, arreta handiz entzun behar dute besteek hitz egiten dutenean, diskoak, esatariak edo beste soinu-iturriak noiz sartu jakiteko.

Gatazkak gainditzeko elkargunea ere izan daiteke irratia. Eztabaidak, mahai-inguruak, iritzi-generoak erabiliz, ikasleek haien artean dituzten gatazkak plazaratu eta hausnarketa bideratu ahal dute. Halaber, mikrofonoen bidez, interesatzen zaizkien gaiak, kezkek edo iradokizunak ikastetxetik kanporatu ahal dituzte, eta komunitateak irtenbideak eman (batzuetan errazagoa izaten da kanpotik diagnosis egitea, barrutik baino). Horrek gurasoen eta auzokoen inplikazioa eskatzen du, baita irratiaren seinalea eskolatik ateratzea ere, hau da, emititzea (ikusiko dugunez, emisioa FMn edo Interneten egin daiteke).

e. Sormena landu

Mintzoa ez ezik, musika, hotsak eta isiltasuna ere badira irrati-diskurtsoa osatzen duten beste soinu-baliabide batzuk. Horiek erabiliz osatzen dute ikasleek irrati-azalpena, kontaketa. Horien balio estetikoaz jabetzen da haurra/gaztea irrati-errealizazioan, baita duen ahalmen komunikatiboaz ere.

Testuak idaztean ez ezik, musikak aukeratzen dituenean edo egoerak asmatzen dituenean ere ikasleak mundu osoa iradokitzen ikasten du, nahiz eta zentzumen bakar bati zuzendutako mezuak eratu. Hitzen balio adierazgarriaz

dagoeneko jabetu da idazlanetan, baina irratan kontakizunak ematen dio horretaz gozatzeko aukera, ñabardurak sartu ahal baititu antzetzten edo irakurtzen duenean. Genero dramatikoetan, umorezko azalpenetan edo testu askeagoetan (albistegiek, esaterako, oso egitura finko eta itxia izaten dutenez, ez diote sormenari tokirik uzten) landuko du bereziki irudimena ikasleak.

Musikak duen balio estetikoaz ez ezik, iradokitze duen ahalmenaz ere konturatzen dira ikasleak. Musika-eskoletan ikasitako kontzeptuak (harmonia, erritmoa...) oso baliagarriak izango zaizkio muntaketa musikalak egiteko orduan, eta betebeharrak horretan muga bakarra izango da gaztearen sormena.

Hotsek argazki moduan eraikitzen dute egoera irratan. Estudiotik atera gabe, antzetzoki ezberdinetara eramaten gaituzte inguruan sorturiko zaratek (errealak edo efektu bereziak). Irudirik ezean, hotsek laguntzen dute guneak eraikitzen. Horretan ere, egilearen sormena da mugak jartzen dituen.

Idatzizko literaturan bezalaxe, irrati-generoen arabera, ikasleak arlo bat baino gehiago landuko ditu. Generoek, gainera, emango dizkiote edukiak antolatzeko irizpideak.

Irrati-generoa	Egin beharreko lanak	Lantzen diren ezaguerak edo ikasketa-arloak
Albisteak Albistegiak	<ul style="list-style-type: none"> Egunkarietan eta beste komunikabideetan argitaratzen diren berriak irakurri, laburtu eta azaltzeko aukera ematen du. 	<ul style="list-style-type: none"> Gaurkotasunarekiko harremana. Irakurketa kritikoa. Laburtzeko ahalmena. Komunikazio-ahalmena (besteei azaldu eta ulertaraztea).
Jingleak Sintoniak Musika	<ul style="list-style-type: none"> Musikak aukeratu, editatu edota sortu. 	<ul style="list-style-type: none"> Musikaren balio adierazkorra ezagutu. Musika-estiloak ezagutu.
Lehiaketak	<ul style="list-style-type: none"> Eskola-ezaguerak edota trebetasunak landu. Galderak/erantzunak prestatu (mailen arabera). 	<ul style="list-style-type: none"> Ikasturtean ikasitako edukiak bereganatu: zientzia, literatura... Era aktiboan ikasi (erantzunak bilatu).
Dramatikoak	<ul style="list-style-type: none"> Irakurketa espresiboa. Antzetzeko aukera. 	<ul style="list-style-type: none"> Literaturan ikasitako antzezlanak hobeto ezagutu. Ahozko adierazpena landu: irakurketa espresiboa, bateko diskurtsoa.
Elkarrizketak Galdeketa Inkestak	<ul style="list-style-type: none"> Pertsona edota gai baten inguruko informazioa bildu. Ingurunea ezagutu. Inguruko pertsonak ezagutu. 	<ul style="list-style-type: none"> Ikasitako edukiak protagonistekin sakondu. Inguruko gizarte-eragileak ezagutu. Esperientzia eta iritzi ezberdinak ezagutu.
Mahai-inguruak Eztabaidak	<ul style="list-style-type: none"> Norberaren iritzia azaldu. Besteen iritzia entzun eta onartu. Norberaren tesiak defendatzeko argudioak prestatu. 	<ul style="list-style-type: none"> Gatazkak gainditzeko tresna (eskolan bertan zein kanpoan sortutakoak). Bestearekiko errespetua landu. Argudioak, iritzia osatu.
Erreportajeak	<ul style="list-style-type: none"> Gai bati buruzko informazioa bildu. Informazio interesgarria eta bigarren mailakoa bereizi. Laburtzeko gaitasuna landu. 	<ul style="list-style-type: none"> Modu dibertigarrian ikasi. Ikasleak kazetari-lana egiten du. Soinu-muntaketa egin behar du. Ikasgaietako gaiak sakontzeko aukera.
Publizitatea	<ul style="list-style-type: none"> Hartzailearengan (entzulearengan) eragiteko argudioak bilatu. 	<ul style="list-style-type: none"> Argudioak eman, entzulea konbentzitzeko asmoz. Erakarri, liluratzeko teknikak jabetu. Publizitatearen aurrean kritikoa izaten ikasi.

f. Inguruan integratzeko tresna

Irratia hezkuntza-tresna erabilgarria izan dadin, nahikoa da eskola barruan entzutea. Ikasleek beraiek emisioa entzun dezakete megafonian —zuzenean— edo ikasgelan —grabatuta—; entzuketa behar-beharrezkoa da ikasketa-prozesuan, egindako akatsak ezagutzeko eta zuzentzeko.

Harago joan daiteke, berriz, egitasmo komunikatiboa, eta eskolan bertan ez ezik, auzoan ere koka daiteke irratia. Hau da, ikastetxeko hormetatik atera eta auzoan entzungai izan daiteke programazioa. Horrela, eskolak berak antolaturiko ekitaldiak ezagutarazi ahal ditu zuzendaritzak, baita eskola-komunitateko gainerako kideei, (gurasoei, ikasle ohiei, auzokoei...) parte hartzeko aukera eman ere. Ikusiko dugunez, FMren bidez emititu ahal da inguru hurbilera; urrutirago heltzeko, aldiz, Internet da emisio-bidea.

Beste ikastetxeetan egiten diren egitasmoak ezagutzeko parada ere ematen dute emanaldi horiek, eta badaude eskolen arteko elkarguneak eta emanaldi bateratuak eskaintzen dituzten irratiproiektuak (*pontenasondas* edo *ondaescolar*, esaterako).

Edukiak, adinaren arabera

Hezkuntza-maila bakoitzean edukiak haurren edo gazteen adinera moldatzen diren bezala, irratiedukiak ere egokitu beharko dituzte irakasle arduradunek, komunikabidea balizko tresna pedagogikoa izan dadin.

Haur Hezkuntzako lehenengo zikloan, hizkuntza ikasteko metodoa abestien eta testuen errepikapenean oinarritzen da; horien bidez, hiztegia bereganatzen dute haurrek, baita esaldi sinpleak garatzen ikasten ere. Era berean, buruz ikasten duten bitartean, memoria lantzen dute. Haienezako irratsaio egokienak dira oso iraupen laburreko ipuinen antzeppenak (ezin dute denbora luzez arreta mantendu), abestiak eta testurik gabeko kontakizunak (kontuan hartu behar da ez dakitela irakurtzen). Denek eta batera hitz egin nahi izango dutenez, irratian txandaka mintzatu behar dela ikasiko dute, baita besteek esaten dutena entzuten ikasi ere bai (asko kostata, hala ere). Era berean, irakasleak aprobeztatuko ditu haurren berezko ezaugarriak, hala nola, berezkotasuna, freskotasuna eta gogoia; ez zaio gehiegi kostako txikienen parte-hartzea, baina gidatu beharko du ezerezean gera ez dadin.

Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloan, hitzak eta oinarritzko eraikuntza gramatikalak ikasteaz gain, irakurtzen hasten dira haurrak (aurre-irakurketa landu egin dute dagoeneko aurreko etapan). Idazketa ere lantzen hasten dira, eta istorio laburrak azaltzeko kapaz dira. Testu idatziarekin oso loturik dauden kontakizun laburrak azaltzen (irakurtzen) dituzten arren, asmatuiko pasadizoak, txisteak azaltzen, baita euren iritziak plazaratzen ikasten dute mikrofono aurrean. Irakasleak gidatzen ditu lan gehienak, eta oso komenigarria izaten da egindakoa entzuteko denbora hartzea; norberak egindakoa ez ezik, besteek egin dutena ere arreta handiz aditzeko.

Bigarren zikloan, norberak prestaturiko lana plazaratzea gustuko du ikasleak. Protagonista ez ezik, aditua ere sentitzen da. Lanak antolatuagoak, landuagoak, sendoagoak dira, eta orduak sartzen ditu prestaketan; beraz, besteek entzun dezatela nahi dute haurrek. Banaka ez ezik, taldeka egiten dira horietako lan asko, eta besteekin batera egitasmoak aurrera eramaten ikasten du. Poliki-poliki teknika jabetzen ari dira; eta irakasleak gidatzen dituen arren, gero eta autonomoagoak dira, batez ere gaiak edo egin beharrekoak aukeratzeko orduan. Berezkotasuna galtzen duten heinean, lanak konplexuagoak dira, eta haurrak kritikoagoak.

Hirugarren zikloan, irakurketa eta idazketa finkaturik, informazioaren teknologiaren oinarriak sartzen dira hezkuntza-plangintzan. Edukiak prestatzeaz gain, tresneria erabiltzen ikasten du haurrak, eta Internet erabiltzen du informazioa (soinu-informazioa barne) jasotzeko. Irratsaioak konplexuagoak dira, eta azalpen errealistaz gain, muntaketa estetikoak eta artistikoak izan ditzake gustuko. Era berean, irratia izaten da ikasleen topagunea. Haien gustuko musika, interesatzen zaizkien gaiak (ez irakasleak proposatutakoak), adierazi nahi dituzten iritziak eta dibertigarriak iruditzen zaizkien pasadizoak eta antzekizunak proposatzen dituzte. Irakaslearen lana, berriz, horiek guztiak bideratzea da, batez ere, helburu pedagogikoetara molda daitezen (eta, beraz, baliagarriak izan daitezen).

Hirugarren/laugarren hizkuntza, teknologia berrien erabilera, testu-mota ezberdinen eraiketa eta beste eduki zehatzagoak sartzen dira Bigarren Hezkuntzako eskola-egitarauan. Ikasgaiak ere konplexuago bilakatzen dira, eta gero eta trebetasun gehiago exijitzen zaizkio gazteari. Era berean, haurtzarotik gaztarorako igarobidean dago ikaslea eta, beraz, aldaketa fisikoak eta psikologikoak nabariak dira, baita munduarekiko harremanak ere. Autonomoagoa da, eta gurasoek baino eragin handiagoa dute ikaskideek iritziak adierazteko edo ekintzak antolatzeke orduan. Hainbat gairen aurrean, irizpide propioa du, eta adierazi nahi du, besteek ere jakin dezaten. Nekez onartzen ditu bestearen ideiak, eta asko kostatzen zaio kritikak ametitzea. Asko kostatzen zaio, ordea, bere ideiak defendatzeko argudioak aurkitzea eta azaltzea, are gehiago ozen jendearen aurrean.

Eskola-irratian, landu ahal ditu horietako arlo asko. Askatasun handiagoa izango du gaiak bilatu eta eratzeko, eta irakaslearen parte-hartzea txikiagoa izango da. Era berean, oso gustuko izango ditu berak antolaturiko jarduerak plazaratzea, baita atsegin duen musika emititzea ere. Ikasleen arteko mezuak elkarri trukitzea, agurrak aireratzea eta eskola barruko gertaerak ezagutaraztea izan daitezke beste proposamen batzuk. Tresneria erabiltzeko gai dira, eta, ondorioz, zuzeneko emanaldiak aurrera eraman ahal dituzte, grabaturiko irratsaioekin batera.

Eskola-irratia bat muntatu nahi dugu

Eskolan, irratia muntatzeak diru-inbertsio handia eskatzen zuen duela urte gutxi, batez ere, eskolatik atera eta auzoan edo inguru hurbilean entzutea nahi izanez gero; urrutira heltzea, berriz, amets beteezina. Gaur egun, aldiz, ikastetxe gehienetan dagoen informatika-gelatik egin ahal ditugu irratsaioak, baita urrutira emititu ere. Horren erantzulea Internet. Eraitza ez da irratia puru-puruan, baina antz handia du komunikabidearekin; gainera, horrek eskaintzen dituen baliabide

berak eskaintzen ditu hezkuntza-prozesuan. Hori dela eta, gero eta gehiago dira teknologia berriek ahalbidetzen duten aukera aprobetxatzearen aldekoak.

Irrati-estudioa –ohikoa— muntatu nahi izanez gero, egokituriko lekua beharko dugu, baita honako tresneria hau ere:

- 12 kanaleko nahasketa-mahaia (txikiagoak ere balio du, kanalak bikoizteko aukera aprobetxatuta).
- 2 edo 3 mikrofono dinamiko eta bakoitzari dagokion oin bana.
- CD edo disko trinkoen irakurgailu bat edo bi.
- Grabatzaile bat (kasetea baino hobeto *mini-disc* edo antzekoa) edo, ahal izanez gero, ordenagailu bat.
- Anplifikadore bat.
- Mahaia eta soinu-iturriak lotzeko kableak eta konektoreak.

Esan bezala, estudioan ordenagailu bat sartu ahal dugu, eta horrek aukera anitz emango dizkigu. Era berean, ezin badugu irrati-estudiorik izan, ordenagailua bihurtu ahal dugu soinuak nahasteko sistema. Horretarako nahiko da ordenagailuak honako ezaugarri tekniko hauek izatea: Pentium IV edo gama altuagoko ordenagailua izan behar da; 60 GB izan disko gogorrean eta 256 MB RAM, baita *Sound Blaster* antzeko soinu-txartela eta soinu-sarrera eta -irteera ere.

Soinua grabatu eta editatzeko programa bat ere beharko da (*Adobe Audition*, *Audacity*⁸, *Sound Forge* edo antzeko beste bat), eta ordenagailuan soinua sartzeko kableak (soinu-iturri ezberdinetatik ordenagailuarekin konexioa egiteko).

Amaitzeko, egindako irratsaioak entzun daitezten emisio-sistema bat behar da. Hezkuntza-helburu batzuk lortzeko nahikoa liteke eskola barruko megafonia ikasleek beraiek irratsaioak entzun ditzaten, edo, arestian esan bezala, grabatu eta entzuteko sistema bat (kasetea bera) txikienean kasuan, bereziki. Eskolatik kanpo entzun ditzaten, berriz, emititzeko sistema bat beharrezkoa izango da. Teknologia berriei esker, duela urte batzuk baino aukera gehiago daude egun irrati-mezuak eskolatik kanporatzeko, auzokoei ez ezik, mundu osora ere zabaltzeko. Ikus ditzagun, banan-banan emititzeko sistema horiek.

Uhinen bidez emititzeko (analogikoan gaur egun) 8 W-eko emisorea nahikoa litzateke inguruan entzun ahal izateko; horretaz gainera, soinuaren konpresore estereofonikoa, kodetzailea eta FMko antena beharko ditugu.

Asmoa Interneten bidez emititzea bada, lehenik eta behin Internetekin konektaturiko ordenagailua sartu beharko dugu estudioan. Edizio-programa bat erabiliz gero, horrek mp3 taxueran gordetzeko aukera emango digu (erabiliena Interneten). Hori nahikoa da grabaturiko artxiboak web orrialde batean –eskolakoan, esaterako— entzungai uzteko (edonork nahi duenean entzun ditzan). *Streaming* edo zuzenean entzun ditzaten nahi izanez gero, ripper –kodeatzailea— bat beharko da, soinu-artxiboa Interneteko taxuerara moldatzeko, *Real Audio Encoder*, *Winamp*,

8. *Audacity* grabazio eta edizio softwarea dohainik lor daiteke Interneten honako helbide honetan: <http://audacity.sourceforge.net/>

Windows Media Encoder edo antzekoa erabil daiteke. Amaitzeko, artxibo hori non “utzi” erabaki beharko da; norberak domeinu eta zerbitzari bat izatea garestia izan daitekeenez, gero eta ohikoagoa izaten da eskola askoren artean kudeaturiko plataforma bat osatzea (esaterako, Galiziako www.pontenasondas.org edo www.ondaescolar.fm). Beste abagune bat izan daiteke *Winamp*, *Shoucast*, *Live 365* edo beste enpresa batzuek eskaintzen dituzten zerrendetan parte hartzea; baina horietan gure mezua besteen askoren artean galtzeko arriskua dago.

Hedatzen ari den beste emisio-sistema berria *Podcast* izenekoa dugu. Norberak sortu ahal duen audio-weblog-a da, eta Interneten bertan aurkitu ahal ditugu *podcast* bat muntatzeko urratsak eta helbideak eskaintzen dituzten web orrialdeak⁹.

Irratsaio baten eraketa

Estudioa —fisikoa edo birtuala— muntatuta dagoela, behar-beharrezkoa da irrati-emanaldia edukiez betetzea. Irratia hezkuntza-tresna baliagarria izan dadin, oso argi izan behar dugu zein den lortu nahi dugun helburua, eta horren arabera lana planifikatu. Besterik gabe, ikasleak xede zehatzik gabe mikrofono aurrean jartzen badira, jostailu polita besterik ez izateko arriskua dugu. Beraz, tresneria edo teknologia erabiltzen ikastea bezain garrantzitsua da irratsaioaren planifikazioa, eskola-irratia abian jartzeko. Partaide guztion artean, parrillan sartuko diren edukiak erabakiko dira. Eginkizun hori bere egin dezake talde batek, eta horrek lana banatuko du ondoren besteen aretan (goi-mailetako ikasleek hartu ahal dute ardura hori txandaka).

Programazioa antolatu eta gero, talde bakoitzak dagokion irratsaioa —edo irratsaio-tartea— osatuko du. Zeregin hori arrakastatsua suerta dadin, oso ondo planifikatu behar ditu edukiak, eta horretarako ezinbestekoa da gidioa.

Gidoia irratsaioaren idatzizko adierazpena da, irratsaioaren hezurdura, eta erabilgarritasunak ezartzen du haren balioa. Hau da, gidioa baliagarria izan dadin, irratsaioaren errealizazioa ahalbidetu behar du. Horregatik, ez da beti gidoi-mota bera beharko irratsaio bat egiteko orduan, batzuetan nahiko izango baita pauta bat erabiltzea; besteetan, berriz, oso gidoi konplexuak beharko dira.

a. Pauta: irratsaioaren jarraibidea ezartzen duen lehenengo hezurdura da. Oso gidoi eskematikoa den arren, bertan ondo bereizi behar ditugu bi alde hauek: literarioa (esatariek esango/irakurriko dutena) eta teknikoak (kontrol-arduradunei dagozkien oharpen teknikoak). Era berean, sartuko diren ordenan antolatzen dira edukiak pautan eta bakoitzari dagokion denbora-tartea eta iraupena ere zehazten dira.

Gidoi sinplea izan arren, askotan nahikoa da ikasleek egindako tarte guztiak antolatzeko mikrofo aurrean jarri aurretik.

9. Horren inguruan gehiago jakiteko, honako web orrialdeak ikus ditzake irakurleak: www.easypodcast.com, www.webdosbeta.net/2005/ponencia_virtual_easypodcast.html, www.howtopodcast.org, www.ipodder.org, www.podcast-es.org/index.php/ComoHacerPodcast, besteak beste.

Hona hemen, pauta baten adibidea¹⁰:

ERREKALDE-BERRIAK (Pauta)		(Ostegunero)
11:40':00"	SINTONIA/KARETA (45")	
11:40':45"	Agurra – aurkezpena (30"). Lehiaketaren aurkezpena	
11:41':15"	AGENDA-BOLADA (5")	
11:41':20"	Agenda (4")	— udalak antolaturiko ekitaldiak — aisialdia — eguraldia (asteburuari begira) — kultur ekitaldiak
11:45':20"	MUSIKA (agendarekin lotuta)	
11:48':00"	Elkarrizketa/Tertulia (etortzen diren hizlariak, ikasle ohiak, institutuko protagonistak)	
12:00':00"	MUSIKA (lehiaketa gogoratu tartean)	
12:03':00"	IRRATI-NOBELA KARETA (10")	
12:03':10"	IRRATI-NOBELA (Grabatuta) (2'50")	
12:06':00	ALBISTEGI-KARETA	
12:06':10	Albisteak (1' 50")	
12:08':00"	MUSIKA	
12:10':00"	<u>Zuk eginda</u> : ikasleek beraiek egindako sormen-lanak (3')	
	Idazlanak: ipuinak, poesiak	
	Grabazioak...	
12:13':00"	<u>Gomendioak</u> : liburu, pelikula, jaialdi edo antzerti baten kronika (2')	
12:15':00"	Horoskopoa (MUSIKA MISTERIOTSUA) (2')	
12:17':00"	Iragarkiak (ERREKLAMO-MUSIKA) (2')	
12:19':00"	Lehiaketa (entzundakoari buruzko galdera) eta agurra	
12:19':45"	SINTONIA (15")	

b.Gidoi literarioa: irratsaioaren alde argumentala edo literarioa soilik azaltzen duen gidoia da, azalpen teknikorik gabe. Esateriak esan behar duenez gain, soinu-planoak eta parte hartzen duten beste soinu-baliabide batzuk ere jasotzen dira (horiek letra larriz agertzen dira, irakurri behar ez dituela jakin dezan esateriak). Hona hemen gidoi literarioaren adibide bat¹¹:

10. Adibide hau 2004ko martxotik maiatzera bitartean, Irale programaren barruan Errekalde Institutuan eskainitako ikastaroan egindakoa da.

11. Adibide hau 2004ko martxotik maiatzera bitartean, Irale programaren barruan Errekalde Institutuan eskainitako ikastaroan egindakoa da.

(...)

ESAT. 2: Egun berezietan joaten ziren sorginak akelarrera: astelehen, asteazken eta ostiraletan soilik. Akerbeltzari opariak eramaten zizkioten egun horietan: ogia, arrautzak edo dirua, adibidez.

ESAT. 1: Leizera sartu aurretik, hitz hauek esan behar zituzten.

ESAT. 3: (EMAKUME ZAHARRAREN AHOTSAZ): Hodei guztien azpitik, sasi guztien gainetik.

ESAT. 1: Behin batean, sorgin batek hitzak oker esan zituen, eta akelarreraino heldu zenean, gorputza urratuta omen zeukan.

ESAT. 2: Sorginak akelarrera heltzen zirenean, akerrari, deabruari, isatsapean musu bat ematen zioten, agur gisa.

ESAT. 1: Ondoren, meza beltza ospatzen zuten. Deabruak meza ematen zuen: Sermoia eta jaunartzea ematen zituen.

ESAT. 2: Jaunartzean, deabruak ogia eta kaliza beltza eta mingotsa banatzen zituen.

ESAT. 1: Usteen arabera, haurrak hiltzen zituzten ere bai. Eta umeen bihotzak eta gorputzaren beste zatiak erabiltzen zituzten aztikeriak eta pozoiak egiteko.

ESAT. 2: Horiei esker, sorginek nolanhako itxura hartzen zuten: asto, txakur edo katuen itxura hartu ahal zuten, adibidez.

(...)

c. Gidoi tekniko edo osoa: Gidoi literarioari xehetasun guztiak gehitzen zaizkionean, gidoi tekniko edo osoa dugu. Gidoi teknikoan, literarioan azaldutako ohar orokorreki dagozkien datu zehatzak gehitzen zaizkie, hala nola, soinu-iturria, esataria, denbora-tartea, planoak, iraupena...

Langaitz irratiko ikasleek egindako lanaren gainean eraturiko gidoi teknikoa da honako hau:

(Langaitz Irratia)

KONTROLA: MUSIKA LP (5'') ETA LAGUNTZEN

ERLAITZ (MIK.1): FM 104an...

KONTROLA. MUSIKA LP (5'') ETA LAGUNTZEN

MOJOYOYO (MIK.2): Langaitz Irratia

KONTROLA. MUSIKA LP (5'') ETA LAGUNTZEN

ALEX (MIK.3): Arratsalde on entzule guztioi !!!

Gaurko, programa dibertigarria prestatu dugu: bideo-jokoak, kirolak, web orri interesgarriak, errezetak, ikastolako txutxu-mutxuak¹², eta askoz gehiago !!!!

KONTROLA: MUSIKA LP (5'') ETA LAGUNTZEN

ERLAITZ (MIK.1): Lehendabizi, Alexek ikastolatik bolo-bolo dabilzan¹³ txutxu-mutxuak azalduko dizkigu.

KONTROLA: MUSIKA LP (5'') ETA LAGUNTZEN

ALEX (MIK.3): Horixe, Erlaitz. Txutxu-mutxu interesgarriak dakartzat. Lehendabizi, Yúyu-ri egingo diogu elkarrizketa bat. Momentu gutxi barru, hemen, Langaitz irratian, ustekabe edo sorpresa gehiago izango ditugu.

KONTROLA: MUSIKA LP (5'') ETA LAGUNTZEN

MOJOYOYO (MIK.2): Yuyu-ren lagun batzuekin hitz egin dugu. Beraiek aitortuko dizkigute neska famatu horri buruzko zurrumurru guztiak.

KONTROLA, MUSIKA LP (5'') ETA LAGUNTZEN

ERLAITZ (MIK.1): Orain entzungo ditugu horiek esan dizkiguten sekretu batzuk.

KONTROLA: MUSIKA LP (5'') ETA LAGUNTZEN

ALAIN (MIK.3): Aurrera lehenengo grabazioa !!!!!

KONTROLA. MUSIKA LP (5'') ETA LAGUNTZEN

GRABAZIOA 1 (...)

KONTROLA: MUSIKA LP (2'') ETA LAGUNTZEN

GRABAZIOA 2 (...)

KONTROLA: MUSIKA LP (1') ETA AMAITU

12. Txutxu-mutxuak jarri beharrean, ikasleek "kotileoa" idatzi zuten. Zuzenketaren bidez, hiztegia aberasten laguntzen du irradi-arduradunak.

13. Jatorrizko testuan, "bolo-bolo dabilzan txutxu-mutxuak" jarri beharrean, "aho batetik bestera joaten den kotileoa" idatzi zuten ikasleek...

Gidoi osoa egokia da oraindik mikrofono aurrean segurtasun handirik ez duten ikasleentzat. Horretan, norberak esan behar duen guztia idatzita dago, eta ez dago ia inprobisatzeko aukerarik. Dena den, “askatasuna” lortu ahala, ikasleak ikasi ahal du testua interpretatzen, literalki irakurri ordez.

Bat-bateko diskurtsoan aritu behar denean, hau da, gidoirik gabe hitz egiten hasten denean, ikasleak eskema bat landu beharko du aurretik, zer esan jakin gabe gera ez dadin, edo denboran gehiegi ez luzatzeko. Hala ere, irratian esaten den moduan “inprobisaziorik onea idatzita dagoena da”, hau da, mikrofono aurrean jartzen garenean, hobe da zer esan nahi dugun aurretik jakitea, eta ez utzi ezer zoriz. Bat-bateko diskurtsoaren ondorioak baitira askotan: kalakak, zehaztasun-falta, akatsak, errepikapenak eta isiluneak... Arazo horiek saihesteko, agurrak (bai hasierakoak bai amaierakoak), aurkezpenak eta esaldi batzuk errepikatzen dira diskurtsoan zehar. Horiek baliabide egokiak izan daitezke besterik ez dagoenean (edo bat-bateko arazoetatik ateratzeko), baina ahal denean, hobe da ez erabiltzea. Esaterako, mota honetako esapideak baztertuko ditugu gure irratit-testuetan:

- *Honenbestez, hasiera/amaiera emango diogu gure...*
- *Orain errepassoa emango diogu...*
- *Hau izan da dena gaurkoz. Besterik gabe...*

Komunikabideetako hizkuntzarekin lotzen ditugun eskema artifizialak erabiltzea baino egokiagoa izan daiteke modu naturalez mintzatzea.

Amaitzeko, eta egindako lanak emaitzak eman ditzan, hau da, aurretik ezarritako xede pedagogikoen arabera erabilgarria gerta dadin, behar-beharrezkoa izango da errealizazioaren ondorengo zuzenketa. Hitzak haizeak daramatza, eta ez badira aditzen, zaila izango da diskurtsoan zehar egindako akatsak zuzentzea. Beraz, hauxe da azkenengo urratsa, irratia hezkuntza-tresna izan dadin: entzuketa. Taldeak irratsaioa entzun eta gero, egindako akatsak aztertzeaz gain, hurrengo batean egin beharreko zuzenketak erabakiko ditu.

Bibliografia

- “La radio escolar: educación en las ondas” (Una experiencia de Proyecto de formación en Centro en el CEIP Cercados de Espina, San Bartolomé de Tirajana).
- Alberdi, D. (2003): “Bizkaia Irratia ahozko komunikabide bakarra mendebaldeko euskeran”, Ahozkotasuna Aztergai, VII. Jardunaldiak, Mendebalde Kultur Alkartea, Bilbo.
- Aldasoro, M. eta Elorza, I. (2004): “Ahozkotasuna hizkuntza arloan: ikasleari hitz ematen planteamendu teoriko orokorra”, XI. Jardunaldi Pedagogikoak, Gasteiz, martxoak 10-12.
- Amonarriz, K.; Arruti, I. eta Osa, E. (2004): “Ahozkotasuna eremu ez-kurrikularrean hizkuntza proiektuaren markoan”, XI. Jardunaldi Pedagogikoak, Gasteiz, martxoak 10-12.
- Anaut, L. (2004): *Amara Berri sistemaren inguruan*, Hezkuntza ekimenak saila, Eusko Jaurlaritza.
- Arnau, R. eta Forcada, J.: *La ràdio a l'Institut. Una iniciativa didáctica*, <www.aulamedia.org>.

- Artigal, J. M. (1990): "Uso/adquisición de una lengua en el marco escolar entre los tres y seis años", *Comunicación, Lengua y Educación*, **8**, 127-144.
- , (1993): "Erabilkeraren garrantzia hizkuntza berri baten eskurapenean", Hezkuntza Eleaniztasunari buruzko I. Nazioarteko Jardunaldiak, Gaztelueta Fundazioa, Areeta-Getxo.
- Bejarano, P. eta beste batzuk (1998): "Hacer ruido en la escuela", *Comunidad escolar*, **125**, Madril.
- Ball, P.; Beobide, H. eta Muñoa, I. (2004): "Ahozotasuna Gizarte Zientzietan", XI. Jardunaldi Pedagogikoak, Gasteiz, martxoak 10-12.
- Bartesaghi, M. P. (2004): "Quand la radio est au service de l'apprentissage des langues. Expériences «Ateliers radio» en français et en italien dans la province de Lecco, en Lombardie", *17^e rencontres internationales ANAREMS*, Belgika, 2004ko martxoaren 18, 19 eta 20.
- Bouaziz, G. (2003): "La radio scolaire: outil d'information et de la communication au service de la maîtrise de la langue et de la citoyenneté", Troisièmes Assises de la radio scolaire.
- Canet i Capetá, C.: *La producció escolar*, <www.aulamedia.org>.
- Collier, H. (2002): "La radio à l'école et la pédagogie de la langue", *La nouvelle revue de l'AIS, Adaptation et intégration scolaires*, Éditions du CNFEI, **18**, Suresnes, 2002ko bigarren hiruhilabetea.
- Contrapunt taldea (1995): "Onda Educativa. Aproximación al medio radiofónico desde la escuela", *Cuadernos de Pedagogía*, **234**, 22-29.
- Egurtza, O. eta Ugalde, E. (2005): "Eskola-irratien lekua pedagogian", argitaratu gabea.
- Feria Moreno, A. (1996): "Medios de comunicación, niveles educativos y áreas curriculares", *Comunidad Educativa*, **234**.
- Fernández Muñoz, R.: *La Radio: aplicaciones didácticas*, <www.uclm.es/profesorado/ricardo/Radio/Radio.htm>.
- Fernández Novell, J. M. eta Zaragoza Domènech, C.: *La ràdio a Secundària*, <www.aulamedia.org>.
- , (2001): "Badaciencia i Juguem amb la ciencia, programes de ràdio com a recurs didàctic", *Perspectiva escolar*, **252**, 67-71. Associació Rosa Sensat, Bartzelona.
- Gaminde, I.; Goikoetxea, J. L. eta Sarriugarte, I. (2003). "Ahozko corpusen premia eta euron erabilgarritasuna eskolan", Ahozotasuna aztergai. VII. Jardunaldiak, Mendebalde Kultura Alkartea, Bilbo.
- Ginart, C. eta Mascar, M.: "Estudi de la situació dels mitjans de comunicació a l'Educació Secundària. Illes Balears", <www.aulamedia.org>.
- Gómez Palacios, J. J. (1987): *La radio joven. Sugerencias para una emisora escolar*, Ediciones CCS, Madril.
- Gutiérrez Caballé, L.: *Fem ràdio!, Educació i Ràdio Local*. Educom, <www.educom.info>.
- Gutiérrez Paz, A., eta Fernández Astobiza, I. (2005): *Irratsaio bat egiteko tailer praktikoa*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.
- Gutiérrez Paz, A. (2000): *Irratirako idazketa eta gidoigintza*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.
- , (2001): *Ekoizpena eta errealizazioa irratian*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.
- , (2004): "Irratia eskolan internetez baliaturik" ikastaroaren apunteak, Irale/Garatu ikastaroak, UEU, Bilbo.
- Jorba, J.; Gómez, I. eta Prat, A. (2000): *Hablar y escribir para aprender*, Universidad Autónoma de Barcelona, Síntesis, Madril.
- "Ley Orgánica 10/2002, de 23 de diciembre, de Calidad de la Educación", BOE, **207**, Madril, 2002ko abenduaren 24a.

- Maquinay, A. eta Ripoll, X.: *La competència bàsica en educació audiovisual*, Departament d'Ensenyament. Generalitat de Catalunya; <www.xtce.es/audiovisuales/competencies/index.html>.
- Moix, M.: *Marc socioeducatiu de l'Educació en comunicació. Etapes educació infantil i primària*, <www.aulamedia.org>.
- Moreno, I.: "Posibilidades didácticas del sonido y radio escolar, implicaciones curriculares", *Comunicación, lenguaje y educación*, **14**, Edisa.
- Nolla, D.: *Bon dia! Som la ràdio de l'escola*, <www.aulamedia.org>.
- Osa, E.; Elorza, I. eta Muñoa, I. (2004): "Ikastolen hizkuntza proiektua ahozketasunaren helduleku", XI. Jardunaldi Pedagogikoak, Gasteiz, martxoak 10-12.
- Pérez Rodríguez, M. A. (2004): *Los nuevos lenguajes de la comunicación. Enseñar y aprender con los medios*, Paidós, Bartzelona.
- Pérez Sorl, R.: *Radio-Activitat, cinc anys de ràdio escolar*, <www.aulamedia.org>.
- Pestano Rodríguez, J. eta Yllera Cebrián, C. (1998): "Utilización de la radio y la televisión en las aulas", *Revista Latina de Comunicación Social*, **9**, La Laguna, 1998ko iraila, <www.ull.es/publicaciones/latina/a/46pes.htm>.
- Pontoreau, P. (2003): *Une démarche créatrice: la radio à l'école primaire*, <www.petitmonde.com/iDoc/Impression/article.asp?id=24834§ion=>>.
- Pozo, J. I. (2004): "Hitz eginez ulertzen dugu elkar: ezagutza elkarrizketa da", XI. Jardunaldi Pedagogikoak, Gasteiz, martxoak 10-12.
- Rekalde, J. (2003): "Geure berbategie proiektua, ahozko aberastasunaren lekuko", Ahozketasuna aztergai. VII. Jardunaldiak, Mendebalde Kultura Alkartea, Bilbo.
- Reñé, S.: *Educar en comunicació en la secundària obligatòria. Apuntes per a la introducció curricular dels Mitjans i les TIC*, <www.aulamedia.org>.
- Serrano Magdaleno, P.: *Ona escolar: una altra forma divertida d'aprendre*, <www.aulamedia.org>.
- Viala, J. P. eta Desplats, P. (1992): *El rincón de la audición para el aprendizaje de la lengua*, Narcea, Madril.
- Vila, I. "Ikastetxearen hizkuntza proiektua: ikasleen hizkuntza kompetentzia garatzeko tresna", XI. Jardunaldi Pedagogikoak, Gasteiz, martxoak 10-12.
- Villalba Pérez, R. (2000): "La radio a l'escola", *Guix*, **265**, Bartzelona.

Web orrialdeak:

- CPME (Colegio Público Mamés Esperabé): www.educa.aragob.es/cpmeejea/radio.htm.
- Erentzun Irratia: www.ikastola.net/ikasweb/biana/radio.htm.
- Eskola-irratien inguruko gogoetak: <http://users.swing.be/petits.genies/index.htm>.
- Galiziako eskola-irratien egitasmoa: www.pontenasondas.org.
- Onda escolar: www.ondaescolar.fm.
- Radio C.ly.p.e., la radio des collégines, des lycéens et des écoliers de Paris:* <http://innovalo.scola.ac-paris.fr/2003/RADIO/>.
- Radio des Petits Génies* irratia: <http://users.swing.be/petits.genies/>.
- Radio Enfant (Canadako eskola-irratiei buruzko informazioa): www.radioenfant.ca, www.franco.ca/radioenfant.
- Radio escolar: www.educa.aragob.es/radio.htm eta www.educa.aragob.es/cpmeejea/guiones.htm.
- REMS (*La Radio En Milieu Scolaire en France*): <http://crd.ac-besancon.fr/remis/>, www.radiocentreville.com.
- XTEC Radio: www.xtce.es/radio.
- Ulibarri egitasmoa: www.ulibarri.info.
- Zoraa irratitari buruzko txostena: www.ulibarri.info/a/deo/dok/ikasle/irrat1.

